

Donostia, 2023ko azaroaren 3a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

INTXAURRONDOKO ANBULATORIOARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Intxaurrondon herritarren irisgarritasuna bermatzeko moduko anbulatorio berria behar izatearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, UDALBATZAREN OSOKO BILERAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondotarrak –auzoko kolektibo batzuen bidez– eta anbulatorioko langileak berak ere aspalditik ari dira Intxaurrondoko anbulatorioak irisgarritasun aldetik dituen gabeziak adierazten.

Udalak ere badu Intxaurrondo Osasun Zentroko Lehen Mailako Arretako Unitateko buruak helarazitako salaketa. Mugikortasun urriko pertsonentzat zentroaren irisgarritasuna eskasa dela egiaztatu eta hobetzeko eskatzen du.

Zehazki, zera adierazi zuen arduradun hark lehen esan dugun salaketan: Sarrerara iristeko bi eskailera-aldi pasatu behar dira, eta sartzeko aldapak, sarreratik urrun izateaz gainera, oso malda pikoa du gurpil-aulkian ibiltzeko. Era berean, gurpil-aulkian doazenek indar fisiko handia izan behar dute aldapa hori igo ahal izateko. Aste honetan bertan ikusi ahal izan dugu zenbat indar egin behar izan duten bi pertsonak gurpil-aulkian zihoan pertsona bat aldapan gora igotzeko.

Oraindik ez da aurrerapen handirik egin, ordea, horretan, nahiz eta 2019ko urriko osoko bileran mozio bat onartu zen, proposamen hau zekarrena:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hobetu eta egokitu ditzala Intxaurrondoko anbulatorioaren sarrerak.

Sarbide-baldintza duin batzuk bermatzeak ekarriko du irtenbidea. Intxaurrondoko anbulatorioaren sarbideek eta orain duen kokapenak ez dituzte baldintza horiek betetzen. Auzotarrek pairatzen dituzten arazo horien konponbidea anbulatorioa beste leku batean jartzea besterik ezin du izan.

Era berean, HAPOren aurrerapena ikusita –1.250 etxebizitza baino gehiago eraikitzea aurreikusten baitu han–, kontuan izan behar dira han izango den biztanleria-hazkundeari erantzuteko behar izango diren ekipamenduak ere.

Horregatik, guk uste dugu ez dagoela gehiago atzeratzerik intxaurrondotarren beharrei erantzutea, urteak baitaramatzate anbulatorio bat eskatzen, baldintza duinetan sartu ahal izateko eta lehen mailako arretako zerbitzu duina bermatzeko izan behar diren baliabideak izango dituenak.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Udalarekin koordinatzeko Intxaurrondon anbulatorio berria egiteko egin behar diren urratsak egiteko, irisgarritasun unibertsala eta lehen mailako arretako zerbitzu duina bermatzeko moduko anbulatorioa.

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia.